

## Aurkezpena

Eskuan duzun gidaliburu honek probokazioak, hausnarketak eta kontraesanak ditu gidalerro. Kriminologiaren esparruan diziplina honi buruzko ezagutza orokorrak ematen dituen euskarazko lehen lanetako bat da, Udako Euskal Unibertsitateari esker posible izan dena. Gaizkiak, indarkeriak, pasioek, gorrotoak, minak edo ankerkeriak, diziplinak barne biltzen dituen adibide ilunek, interes soziala pizten dutela baieztatzen ausartuko nintzateke —gure eguneroko bizimoduarekin zerikusia dutelako, albisteetan ikusten ditugun zenbait portaerak txunditu egiten gaituztelako edo ongiatz eta gaizkiaz eztabaidatzera gonbidatzen gaituztelako—.

Askok, ordea, ez dute ondo ulertzen zeri buruz ari garen kriminologiari buruz hitz egitean: Zeintzuk dira haren ezaugarriak? Zer ikerketa-objektu hartzen ditu? Zientzia da? Hori ikasi egiten da? Non? Zein izan da haren eboluzio historikoa? Lan honetan zalantza eta egoera hauei guztiei erantzuna ematen ahaleginduko gara. *Kriminologiaren printzipioak* izenarekin —kasu eginez Kriminologiako Graduak lehen urtean hainbat unibertsitatetan ematen den irakasgaiari— gidaliburu honen edukia diziplinaren sarrera gisa uler dezakegu. Kriminologia ezagutzeko oinarritzko elementuen deskribapena eta eztabaida lantzen dituen tresna edo erraminta.

Izenburu nagusia hori izanik, azpi-izenburuari erreparatzen badiogu —*Kriminaren testuinguruan hausnarketa kritikoa sustatzeko gidaliburua*—, garrantzitsua iruditzen zait aurkezpen honetan *hausnarketa kritikoa* zer kontsideratzen dudan azaltzea. Horretarako Gloria Jean Watkins-en (1952-2021) hitzetan oinarrituko naiz, bell hooks ezizenez ezagunagoa izan zen idazle, aktibista eta militante estatubatuarra.

Horrela, lehengo zalantzari erantzuna emateko orduan, gomendagarria dela uste dut aldeztetik ni nor naizen eta lan hau nori zuzenduta dagoen azpimarratzea. Ni, Jon Gómez Garmendia, kriminologiaren munduan hamar urte ikasten daramatzen 29 urteko gaztea naiz. 2017. urtean Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiako Graduak laugarren promozioan graduatu nintzen eta, geroago, Bartzelonan masterra eta doktoretza egin nituen. Ibilbide honetan kriminologiarekiko amodio-gorroto harreman bat izan dudala onartu beharra daukat. Herrialde askotako ikaskideak ezagutu ditut, dozenaka irakasle, ezagutza desberdin... Baina, hala ere —lan honetan eman nahi den ideiarekin loturik—, ohartu naiz gaur egungo egoera, injustizia eta egiturazko indarkerien aurrean kriminologiak zerbait gehiago egin dezakeela. Zuzenbide penalarekiko mendekotasuna eta botere-interesenganako «zerbitzari» papera onartezina da!

Nire ikerketa eta lanetan defendatzen ahalegindu naizen bideari jarraituz, gidaliburu hau nire posizio subjektibotik idatzita dago. Aukera paregabea da kriminologiaren munduan lehen harremanak eduki nahi dituenarentzat, jarrera kritiko eta pertsonal bat irizpide izanik, beste gidaliburu batzuetan aipatzen ez diren gauzak esaten direlako, irakurlea hausnarketara bultzatzeko. Horrela, esan dezaket lan hau egunerokotasunari lotutako gai, gai ilunen aurrean ditugun sentimenduei eta gaizkiari buruzko interesa duen pertsona orori zuzenduta dagoela. Gainera, kriminologiari buruz ezagutza handiagoa duten ikasle eta irakasleentzat ere erabilgarria izan daiteke. Lan hau gidaliburu akademikotzat har daitekeen arren, irakasle batek esaten zigunarekin lotuz, kriminologian «gidabaimena ateratzeko» prozesuan erabil daitekeen erraminta kontsidera dezakegu.

Igorlea eta hartzaileak behin identifikaturik, azpimarratu behar dut bidali nahi dudan mezua hausnarketara bideratuta dagoela. Hausnarketa kritiko bat, bere oinarrian honako ideia hau hartzen duena: «Pentsamendua akzio bat da [...] pentsamendu kritikoaren motorra jakin-mina da, biziak nola funtzionatzen duen jakiteko jakin-mina» (bell hooks, [2010]2022, 77. or.). Hortaz, esandakoarekin lotuz, lan honen xedea jakin-min hori piztea edo areagotzea izango litzateke. Auzi kriminalaren funtzionamenduaren inguruan nire posiziotik idatzen eta eztabaidatzen ditudan gaiak zure burutazio eta iritziekin talka egitea dute helburu.

Adibidez, lanaren edukian zehar Argentinan egin nuen bidaia eta bertako bizipenak aipatuko ditut. Han Buenos Airesko Memoriaren Parkean 6 metroko eskultura erraldoi bat bisitatu nuen, Marie Orensanz (1936-2010) artistak altzairuzko bi zati handirekin eginikoa. Eskultura horren mezua liburuen zentsurarekin eta pentsamenduaren askatasunarekin lotuz —baita bere kokalekuarekin ere—, letra formako zenbait hutsunek esaldi bat osatzen dute beraren egiturari: «Pensar es un hecho revolucionario». Artistaren aburuz, pentsatzeak eta hausnartzeak gauzak eraldatzeko balio dute, horregatik egunero egin behar genukeen jardura izan beharko luke. Gu gidaliburu honen atal bakoitzean bilatzen ahalegindu gara helburu hori.

Ondorioz, gure hausnarketa ildo horretan kokatzen badugu, zergatik izan behar du *kritikoa*? Zer esan nahi du horrek? bell hooks-en iritzia jarraituz, ikuspuntu horrek pentsatzea, hausnartzea, ohiko parametroetatik aldentzea eta desbideratzea —lanean zehar hainbat alditan erabiliko dugun terminoa— ekarri behar du. Lan hau ez da gidaliburu arrunt bat «informazioa prozesatzeko eta dagokion unean erabiltzeko» (bell hooks, [2010]2022, 18. or.). Ez du horretarako balio. Ez da horretarako idatzi. Lanak gure jarduna konpromisoaren pedagogiarekin lotzeko helburua dauka: pentsatzeko gogoak bilatzea, kriminologia ezagutzea, biluztea eta eraldaketarako aukerak bilatzea.

Edukiari dagokionez, lan honen egitura zortzi kapituluk osatzen dute. Lehendabizikoak ikuspegi orokor bat emateko helburua dauka. Gidaliburuan zehar

landuko diren gaiak jorratuz haiekiko oinarri eta hasierako ezagutza bat izateko balioko du. Horrela, kriminologia espezialitate gisa aurkeztuko dugu, hura sortzen duten elementuei egingo diegu erreferentzia, definizio desberdinak aipatuko ditugu eta auzi edo fenomeno kriminala espazio/denbora jakin baten arabera eraikuntza soziala dela ikusiko dugu.

Bigarren kapituluari dagokionez, honek ezagutza kriminologikoa izango du ardatz. Erakusten ahaleginduko gara kriminologia hainbat diziplinarekin harremana duen zientzia bat dela —hala nola antropologia, psikologia, soziologia eta, nola ez, zuzenbidea—, haiengandik influentzia izanik, fenomeno kriminala hainbat teknika, metodo eta paradigmata ikertzea posible baita. Guk, bereziki, paradigma zientifiko positibistari, interpretatzaileari eta soziokritikoari egingo diegu erreferentzia. Paradigmaren arabera, ikerketa-teknika baten edo bestaren alde egiteko joerak daude: estatistikak, inkestak, esperimendua —teknika kuantitatiboak—, edota elkarrizketa sakonak, eztabaida-taldeak, behaketa parte-hartzailea eta azterketa dokumentala —teknika kualitatiboak—. Horiekin batera joera kritikoa duten teknika eta baliabideak lot daitezke, hala nola irudimen kriminologikoa edo ikerketa-ekintza.

Ezagutza eta alderdi metodologikoak aurkeztu ondoren, hurrengo atalean erantzuna ematen ahaleginduko gara honako galderei: zer lan-irtenbide ditu kriminologiak? Zertarako balio du? Non eta zertan dihardu Kriminologiako graduatu batek? Benetan al da «kriminologo» izeneko lanposturik? Hau da, kriminologiaren paperari eta funtzioei buruz jardungo gara. Bereziki hiru zeregin garrantzitsu hauetan geldituz: 1) krimenari buruzko ezagutza; 2) krimenaren interpretazio edo azalpena; eta 3) krimenari edo krimenaren tratamenduari eta prebentzioari emandako erantzuna. Hiru gai desberdin krimenaren ezagutzak izaera politikoa duela ulertzeko balio izango digutenak, baita gizarte-egiturek ekintza hauen gaineko pertzepzioan eragina badaukatela.

Hurrengo erronka objektu kriminologikoa deskribatzea izango da. Hau da, auzi kriminala. Horretarako, hurrengo bi kapituluetan, haren dimentsio nagusiei egingo diegu erreferentzia: delitua, delitugilea, biktima eta kontrol soziala. Lehendabiziko biegi dagokienez, laugarren atalean deskribatuko ditugu honako xede hauekin: delitua juridikoki definitzea, haren elementu nagusietako batzuk ezagutzea, baita lan kriminologikoan duen funtzioari buruzko eztabaidak kokatzea; delituari buruzko ikuspegia zabaltzea desbideratze sozialaren, giza eskubideen edo kalte sozialen proposamenei jarraituz; eta diziplinak gaizkileei historikoki eman dien trataera ezagutzea, tipologia, sailkapen eta estereotipo batzuen bidez.

Bosgarren kapituluari, berriz, biktima eta kontrol sozialaren dimentsioak izango ditugu ardatz. Bertan honako helburu hauek finkatuko dira: biktimak auzi kriminalean izan duen papera, ahanztura eta tipologia batzuk ulertzea; biktimologiaren funtsezko alderdi batzuk, biktimen rola defentsan emandako ekarpenak eta biktimaren nozio «juridiko» eta «sakrifizial»etik baino haratago doazen proposamenak zerrendatzea;

gizarte-arau jakin batzuen berme eta sustapenean kontrol sozialaren garrantzia zehaztea; eta zenbait gizarte-erakundek ordena jakin bat mantentzeko eta presioa ezartzeko rola zalantzan jartzea.

Seigarren eta zazpigarren ataletan, definizioa, ikerketa-metodologiak, funtzioak eta objektu kriminologikoaren dimentsioak ezagututa, egoera sozial eta behar desberdinen aurrean proposatu diren erantzun eta teoria kriminologiko desberdinak jorratuko ditugu. Ordena kronologiko bati jarraituz, lehendabizi kriminologia prezientifikoari buruz hitz egingo dugu, eta geroxeago positibismoaren ekarpenei edo soziologiaren korronteko ikerketa-bide desberdinei erreferentzia egingo diegu —funtzionalismoa, asoziazio diferentziala, neutralizazio-teknikak, etab.—. Bigarren atal batean, teoria hauek Bigarren Mundu Gerraren osteko beste teoria batzuekin lotuko ditugu: elkarreragin sinbolikoa eta etiketen teoria —auzi kriminalaren ikerketan lehen haustura epistemologikoa eragin zuena—, gatazken teoriak, ikerketa marxistak eta kriminologia kritikoa —«antikriminologia» eginez bigarren haustura ekarri zuen korrontea—.

Ibilbide honi amaiera emateko, egoera garaikideari edo gaurko egoerari erreferentzia egingo diogu azken kapituluan. Gainera, arriskuaren, aktuarialismoaren eta joera zigortzailearen dinamketan oinarritutako politikak eta egoerak aipatu ondoren, irtenbide bat proposatuko dugu: *kriminologia kritiko globala* —diziplinaren hirugarren haustura ekarri duen korrontea—; egiturazko indarkeriak eta kalte sozialak aztergaitzat hartuta, memoria kolektiboa muga epistemologiko gisa ezartzen duen korrontea.

Zaila dirudi hainbeste eduki esku artean duzun gidaliburuan biltzeak, ezta? Agian, bilatzen zaudena ez duzu hemen aurkituko. Lan honek ez du 500-600 orrialdeko gidaliburu batekin konparaziorik merezi. Ordea, ziur egon zaitez gogoetarako aukera paregabea emango duela, eta diziplinan euskarazko lehenetariko tresna dugula kontuan hartuta, hobekuntzak beti izango dira posible. Hori esanda, bukatzeko kriminologiaren munduan ezagutu ditudan ikaskide, lagun, erreferente eta irakasle guztiei eskerrak eman nahi dizkiet lan hau burutzea posible egin dutelako.

Arkatza hartu eta kritikatu!



**0.1. irudia.** Egilea Marie N. Orensanz, *Pensar es un hecho revolucionario lanarekin*. Iturria: Gustavo Castellari lagunak Buenos Airesko Memoriaren Parkean eginiko argazkia.



# 1. Kriminologia: ikuspegi orokorra

2013. urtean, 17 urteko gazte batek zerrenda luze bateko ikasketa-graduaren artean erabaki behar izan zuen: Zuzenbidea, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Soziologia, Antropologia, Psikologia... Erabaki horrek bere bizitza akademikoa markatuko zuen hurrengo urteetan, plaza lortu eta unibertsitatean sartzen bazen. Diziplina guztiak interesgarriak iruditzen zitzaizkion, hala nola zuzenbideak giza eskubideetan duen interesa, kulturekiko eta etnografiarekiko jakin-mina antropologiaren aldetik, edo psikologiak «deszifratu» ditzakeen emozioen esanahi sakona. Horregatik, telesailetan ikusitakoak eragin handia izanik, kriminologia lehen aukera gisa jartzea erabaki zuen. Izan ere, diziplina honek bere baitan beste diziplina batzuetako osagaiak barne biltzen zituen, aldi berean, etorkizunean zer norabide hartu erabakitzeko aukera emanez.

Gazte horrek idazten du eskuliburu hau —duela 10 urte bezain gaztea ez bada ere—. Ikasketa-aukeren zerrenda hura bete eta lau urtera, kriminologian graduatu zen eta, gaur arte, idazki honek aurkezteko asmoa duen diziplinan oraindik formatzen jarraitzen du. Aurkezpen honi dagokionez, hau ez dator bat kriminologiari buruz gaztetan nuen ikuspegi «tradizionalarekin» —telesailetan ikusitakoaren arabera alboratua— eta, seguru asko, zuk ere izango duzunarekin, irakurle. Beraz, kapitulu honetatik hasita, gidaliburu honen helburua kriminologiaren printzipioak ikuspegi kritiko batetik aurkeztea izango da. Bidaia horri hasiera emanez, lehen kapitulu honetan aipaturiko printzipioak labur-labur azaltzen ahaleginduko gara lan osoaren edukiaren ikuspegi orokor bat emateko helburuarekin.

## ***IKASKETA-HELBURUAK***

Kapitulu hau irakurri ondoren, gai izango zara:

1. Diziplinari buruzko hasierako estereotipoak alde batera uzteko eta kriminologia espezialitate akademiko gisa ezagutzeko.
2. Kriminologiari eta hura osatzen duten elementuei buruzko irudi orokor bat izateko.
3. Kriminologiaren diziplinari definizio bat emateko, behin-behinekoa edo alde zurrekoa bada ere.
4. Auzi edo fenomeno kriminala espazio/denbora jakin baten arabera eraikuntza sozial eta dinamikoa dela ulertzeko.





## 1.1. KONTZEPTUA

Kriminologiari buruz hitz egiten dugunean, berehala etortzen zaizkigu burura hilketei, gaizkiari edo indarkeriari buruzko irudiak. Ideia horiek bat egiten dute eleberri beltzetan irakurtzen dugunarekin edo telesailetan —CSI ezagunean, adibidez— eta Hollywoodeko hainbat filmetan ikusten dugunarekin. Horrela, kriminologoak delituak eta delitugileak «aurkitu» egiten dituela, lege-hausleak epaitegietara eramaten dituela eta kasuei buruzko auzitegiko txostenak idazten dituela uste dugu (Larrauri, 2018a, 9. or.). Hala ere, interpretazio horiek ez dira zuzenak edo, gutxienez, ez dira zuzenak zentzu zehatz batean, diziplina honek hartzen duen ikuspegia zabala baita. Lehenengo kapitulu honetan baieztapen hori justifikatzen saiatuko gara.

Euskal Herrian, gure hizkuntzan emandako definizio batzuetara jotzen badugu, Euskaltzaindiak (d.g.a), adibidez, honela definitzen du kriminologia: «Gertakari kriminalen azterketa zientifikoa». Euskal Herriko Unibertsitatearen Egungo Euskararen Hiztegiaren (d.g.) antzeko kontzeptua: «Zuzenbidearen adarra, delitua alderdi guztietatik aztertzen duena». Hitzaren etimologiarekin lotura estua duten definizioak. «Kriminologia» *criminis* —krimena, errua, akusazioa— eta *logos* —diskurtsoa, azterketa, arrazoa— latinismo eta helenismoen batasunetik dator. Beraz, haren esanahiaren erroa «krimenaren azterketa edo diskurtso arrazionala» litzateke.

Termino berri samarra —beste diziplina batzuekin alderatuta—, XIX. mendean zehar erabiltzen hasi zena. Rafaele Garofalo (1851-1934) jurista italiarrak 1885. urtean argitaraturiko *Criminologia: studio sul delitto, sulle sue cause e sui mezzi di repressione* lana edo Paul Topinard (1830-1911) mediku eta antropologo frantziarraren *L'anthropologie criminelle* (1887) kriminologia hitza erabili zuten lehen adibide nabarmenenak dira. Kriminologia kriminalitatearen eta zigorren azterketan oinarritutako zientzia gisa interpretatu zutenak.

Nolanahi ere, akademikoek hainbat ikasketa-eskuliburutan gaur egun erabiltzen dituzten definizioek agerian uzten dute kriminologia zer den adierazteko modu adosturik ez dagoela. Adibidez, Euskaltzaindiak kriminologia «azterketa zientifiko» gisa onartzen duen interpretazioa alde batera uzten duten definizioak ere badaude, edo, aurrerago ikusiko dugun moduan, «zuzenbidearen adarra» deritzon diziplinarekin zerikusirik ez duten ikerketa-objektuak aipatzen dituztenak. Desberdintasun eta desadostasun horiek adieraztearren, honela interpretatzen dute kriminologia zenbait definizioik:

Zientzia enpirikoa eta diziplinartekoa, krimenaren sorrerarekin, burutzearekin eta saihestearrekin lotutako giza eta gizarte-arloko inguruabarrez arduratzen dena, bai eta legearen bortxatzaileen tratamenduaz ere (Göppinger, 1975, 1. or.).

Delinkuentzia eta hura kontrolatzeko erabiltzen diren sistema sozialak aztertzen dituen zientzia (Hassmer eta Muñoz Conde, 1989, 26. or.).

Krimena eta delinkuentzia fenomeno sozialtzat hartzen dituen ezagutza multzoa. Bere ikerketa-esparruaren barruan sartzten ditu legeak egiteko prozesuak, legeak

hausteko prozesuak eta legeen arau-haustearrekiko erreakzioa (Sutherland, Cressey eta Luckenbill, 1992, 3. or.).

Delituaz eta delitugileaz arduratzen den zientzia, fenomeno indibidual eta sozial gisa (Serrano Maillo, 2009, 33. or.).

Krimena, delitugilea, biktima eta delituzko jokabidearen gizarte-kontrola helburu dituen zientzia enpiriko eta diziplinartekoa; krimenaren sorrerari, dinamikari eta aldagaiei buruzko informazio balioduna, egiaztatua eta fidagarria ematen duena —fenomeno hori banakako eta gizarte-arazo gisa hartuz—; bai eta haren prebentzio eraginkorrari, krimenaren aurrean erreakzionatzeko estrategia eta moduei eta biktima eta delitugileen esku-hartze positiboko teknikei buruzkoa ere (García-Pablos de Molina, 2014, 55. or.).

Delituaren azterketaz eta kontrol sozialaz arduratzen den diziplina anitzeko zientzia (Tamarit Sumalla, 2014, 15. or.).

Jokabide kriminal, antisozial eta delitugilearen zenbait alderdiri buruzko datuak aztertzen dituen diziplina arteko zientzia (Walsh, 2016, 2. or.).

Delituzko eta gizartearen aurkako portaerak aztertzen dituen zientzia, dimentsio erreal eta hautemangarri batean, baita kriminalitatea, arau-hauslea eta biktima prebenitzeko, kontrolatzeko eta tratatzeko erabiltzen diren gizarte-kontrol formal eta informaleko mekanismoak ere, herritar guztien ongizate pertsonala eta soziala zaintzeko azken helburuarekin (Buil Gil, 2016, 8-44. or.).

Zientzia enpiriko eta aplikatua da, behaketaz, esperimentazioaz eta estatistikaz baliatuta, metodo horien bidez emandako datuei buruzko berrinterpretazioa eta hausnarketa alde batera utzi gabe, gaizkilea, biktima, epaitutako herritarrak edo sistema penaleko agenteen arteko interakzioak aztergai dituena; baita honen gainean aplikatutako mekanismoak, estrategiak eta helburu haiek lortzeko beharrezko baliabideak ere (Herrero Herrero, 2017, 42. or.).

Eskualde bateko Zigor Kodeak debekatzen dituen egintza eta omisioen jatorria, hedadura, kausak eta ondorioak aztertzen dituena. Era berean, legearen portaera kaltegarriari eta arau-hausleari ematen dizkiogun erantzun indibidual eta kolektiboen ikerketak eta gogoetak biltzen ditu; baita portaera horretan parte hartzen dutenentzako delituaren esanahia, eta komunikabideek delitua nola deskribatzen, eztabaidatzen eta islatzen duten ere (Brisman, Carrabine eta South, 2017, 1. or.).

Delinkuentzia eta gure gizarteak nola erreakzionatzen duen aztertzen duen gizarte-zientzia, bereziki sistema penalaren bidez, delinkuentzia prebenitu eta zigortzeko funtzioa duena (Larrauri, 2018a, 9. or.).

Krimena, hura kontrolatzeko ahaleginak eta/edo harekiko jarrerak ikertzen dituen azterketa (Walsh eta Poole, 2019, 56. or.).

Delituzko portaerak eta haiek sorturiko gizarte-erreakzioak aztertzen dituen zientzia (Redondo Illescas eta Garrido Genovés, 2023, 25. or.).

Aurkeztutakotik abiatuta, definizio horiek abiapuntutzat hartuta, hainbat elementu landu daitezke —Buil Gilek (2016) egindakoaren antzera—, kriminologiaren benetako irudia islatzeko helburuarekin (1.1. taula). Hauek dira, adibidez,

kriminologiaren kontzeptua osatzen duten ezaugarriak eta jarraian laburki aurkeztuko ditugunak:

- i) Defendaturiko ezagutza mota —hala nola «diskurtsoa», «azterketa», «zientzia», «gizarte-zientzia» edo «ezagutza multzoa»— eta erabilitako metodoa —«enpirismoaren alde», «behaketa, esperimendazioa eta estatistika» edo «diziplinartekotasuna»—.
- ii) Kriminologiaren funtzioak —«krimenaren prebentzioa», «arau-hausleari buruzko esku-hartze positiboa» edo «herritar guztien ongizate pertsonal eta soziala zaintzea»—.
- iii) Ikerketa-objektua —fenomeno kriminala eta haren dimentsio-aniztasuna, delitua, delitugileak, biktimak eta gizarte-kontrola aztertzean oinarritzen dena—.

### 1.1. taula. Aurkezturiko kriminologiaren definizioen ezaugarriak.

Definizioa	Ezagutza mota	Funtzioak	Objektua(k)
Göppinger (1975)	Zientzia enpirikoa eta diziplinartekoa	Krimenaren sorreraz, burutzeaz eta saihesteaz arduratzea	Krimena
		Legearen bortxatzaileak tratatzea	Legearen bortxatzaileak
Hassemer eta Muñoz Conde (1989)	Zientzia		Delinkuentzia
			Delinkuentzia kontrolatzeko erabiltzen diren sistema sozialak
Sutherland, Cressey eta Luckenbill (1992)	Ezagutza multzoa	Legeak egiteko prozesuak, legeak hausteko prozesuak eta legeen arau-haustearekiko erreakzioa ikertzea	Krimena eta delinkuentzia (fenomeno sozialtzat ulertuak)
Serrano Maíllo (2009)	Zientzia		Delitua eta delitugilea fenomeno indibidual eta sozial gisa
García-Pablos de Molina (2014)	Zientzia enpirikoa eta diziplinartekoa	Krimenaren sorrerari, dinamikari eta aldagaiei buruzko informazio balioduna, egiaztatua eta fidagarria ematea	Krimena, delitugilea, biktima eta gizarte-kontrola
		Prebentzio eraginkorra eta krimenaren aurrean erreakzionatzeko estrategiak lantzea	
		Biktima eta delitugileen esku-hartze positiboko teknikak proposatzea	

Tamarit Sumalla (2014)	Diziplina anitzeko zientzia		Delitua
			Kontrol soziala
Walsh (2016)	Diziplina arteko zientzia	Jokabide kriminal, antisozial eta delitugilearen zenbait alderdiri buruzko datuak aztertzea	Jokabide kriminal eta antisoziala
			Delitugilea
Buil Gil (2016)	Zientzia	Kriminalitatea prebenitzea, kontrolatzea eta tratatzea	Delituzko eta gizakiaren aurkako portaerak
			Gizarte-kontrol formal eta informalen mekanismoak
		Herritar guztien ongizate pertsonala eta soziala zaintzea	Delitugilea
			Biktima
Herrero Herrero (2017)	Zientzia enpiriko eta aplikatua, behaketaz, esperimazioaz eta estatistikaz baliatzen dena		Delitugilea
			Biktimak
			Epaitutako herritarrak
			Sistema penaleko agenteak
Brisman, Carrabine eta South (2017)	Azterketa	Delituen jatorria, hedadura, kausak eta ondorioak ezagutzea	Zigor Kodeak debeketzen dituen egintza eta omisioak
		Portaera kaltegarriari erantzuna ematea, delituek duten esanahia ezagutzea eta komunikabideek deskribatzen eta islatzen duten nola ikertzea	
Larrauri (2018a)	Gizarte-zientzia		Delinkuentzia
			Gizarteak delinkuentziari erreazionatzeko moduak, batez ere, sistema penalaren bidez
Walsh eta Poole (2019)	Azterketa		Krimena, hura kontrolatzeko ahaleginak eta/edo harekiko jarrerak
Redondo Illescas eta Garrido Genovés (2023)	Zientzia		Delituzko portaerak
			Delituzko portaerek sorturiko gizarte-erreakzioak

Iturria: norberak prestatuakoa.

## 1.2. EZAGUTZA KRIMINOLOGIKOA

Definizio horietako askok ezagutza zientifiko enpiriko eta diziplina anitzekotzat hartzen dute kriminologia. Interpretazio hau paradigma positibistatik egiten da, auzi kriminala, batez ere, ikuspegi analitiko, arrazionalista, sistematiko, egiaztagarri, objektibo, neutro eta esperimentaletik aztertuz. XIX. mendeko diziplinaren jatorriarekin —gutxienez, zientzia autonomo gisa— bat datorren paradigma da, bereziki Italiako *Scuola Positivista* kideen ekarpenek bideratuta: Cesare Lombroso, Raffaele Garofalo eta Enrico Ferri.

Hala, krimenari buruzko diskurtsoa garai ilustratua baino lehenagokoa izan arren —1.5. atalean eta 6. kapituluaren ikusiko dugun moduan—, kriminologiari buruzko interpretazioa urrunduta dago garai prezientifikoko fedetatik, mistizismotik edo erlijiotik. Auzi kriminala, analisiaren, behaketaren eta esperimentazioaren bidez, kuantifikagarria, behagarria, kontrastagarria, auresangarria eta kontrolagarria den objektua kontsideratzen da. Beraz, metodo induktibo batean oinarritzen da, non horren jatorria natura-zientzietatik datorren eta fenomeno kriminala molekularak, landareak edo birusak balira bezala interpretatzeko helburua duten (Ramos, 2015, 11. or.).

Definizio gehienek zientzia *enpirikotzat* hartzen dute kriminologia; izan ere, krimenaren kausak ezagutzeko helburuetan bide hipotetiko-deduktibo baten alde egiten du. Hasiera batean, teoria orokor bat formulatuz, hipotesiak egiaztatu edo faltsutzeko metodo erreplikagarrien bidez ikerketa egitea du helburu. Hau da, lege orokor eta unibertsalen formulazioan oinarritzen den metodoaren aurrean gaude (Larrauri, 2018a, 34. or.; Walsh eta Poole, 2019, 170. or.). Ondorioz, ikerkuntza kriminologikoaren helburua errealitate kriminalaren etiologia ezagutzeko da eta horrek sortzen dituen arazo sozialei irtenbideak bilatzean oinarritzen da.

Era berean, kriminologia *diziplina arteko* edo *diziplina anitzeko* zientzia ere bada, beraren edukiak, metodologiak eta tresnak diziplina multzo bati erantzuten baitiote —esate baterako, matematikaren estatistika, antropologiaren etnografia, zuzenbidearen kasu- eta jurisprudentzia-azterketak edo psikologian eta soziologian erabiltzen diren galdetegiak eta elkarrizketak—. Itxurazko «mendekotasun» bat beste diziplinen aurrean, non, dena dela, autonomia estrategikoa eta diskurtso espezifikokoaren nagusitasuna badaukan haiekin alderatuta (Anitua, 2015, 34. or.).

Nolanahi ere, kriminologiari buruzko interpretazio positibista honetatik haratago —errealitate jakin, neurgarri, objektibo, egiaztagarri eta abar bat aztertzen duen zientzia—, lanean zehar aurkeztuko dugun bezala —batez ere 2. kapituluaren—, badira posizionamendu hori zalantzan jartzen duten beste paradigma batzuk, hala nola paradigma interpretatiboa edo soziokritikoa. Era berean, kriminologiari buruzko kapituluaren hasieran aipaturiko definizioetako batean irakurri ahal izan dugunez, autore batzuek ez dute kriminologia zientzia gisa identifikatzen, baizik eta «ezagutza-gorputz» moduan (Sutherland, Cressey eta Luckenbill, 1992).

Aipatutako kritiken artean, honako iritziak gehitu daitezke:

- 1) Fenomeno kriminalak ez duela positibismoak defendatu nahi duen balio unibertsalik.
- 2) Ez dela zuzenbide penaletik autonomia, ez du aztergai berezirik, ulertzen baita delitua edo legez kontrako portaerak zuzenbide penalak definitzen dituela, baita harekiko erantzuna ere.
- 3) Ez duela metodo propiorik, beste diziplinen metodoak erabiltzen baititu (Buil Gil, 2016, 15-16. or.; Larrauri, 2018a, 27. or.).

Eztabaida hau, ordea, «doktrina»ren zati handi batentzat «iraungia eta alferrikakoa» da; izan ere, gaur arte izandako jakintzek frogatzen dute fenomeno kriminalak esplikatu eta aurreikus daitezkeela, baita haien prebentzioa eraginkorra izan daitekeela ere (Buil Gil, 2016, 12-13. or.; Ibáñez Peinado, 2017, 127. or.). Guk, gure iritziz, zalantzan jar dezakegun aspektua da, bereziki zuzenbide penalarikiko autonomiaren inguruko eztabaidan.

### **1.3. KRIMINOLOGIAREN FUNTZIOAK**

Kapituluaeren hasieran erabilitako definizioen arabera, kriminologiak eginkizun hauek ditu: 1) krimenaren kausei buruzko informazioa ezagutu eta ematea; 2) krimenari aurrea hartzea eta hari aurre egiteko estrategiak eskaintzea; 3) legeen sorrera eta arau-haustea aztertzea; eta 4) biktimen eta delitugileen tratamenduaz arduratzea. Kriminalitatearen dimensio objektiboan oinarritzen diren funtzio hauei faktore subjektiboak ere gehitzen zaizkie, hala nola delituaren esanahiari emandako erantzunak, delinkuentziaren pertzepzioak edo jasotako tratamendu mediatikoa (Buil Gil, 2016, 7. or.). Gizarte-zientzia kontsideratzen den aldetik, gizarte-errealitatean eragiteko eta herritarren ongizatea zaintzeko helburua ere duten eginkizunak.

Beraz, kriminologia CSI bezalako telesailetan ikusten dugunarekin alderatzeko orduan, ditugun estereotipoetatik urrun, kriminologiaren funtzio tradizionala auzi kriminalaren etiologia ezagutzeko datza. Kriminalistekin bat ez datorren alderdia, zeinak poliziak erabiltzen dituen teknikei egiten baitie erreferentzia —toxikologia, balistika edo daktiloskopia, adibidez—, arau-hauste penal jakin bat nola gauzatu den ezagutzeko helburuarekin (Larrauri, 2018a, 15. or.). Hortaz, kriminalistikak auzi kriminalaren inguruan *nola* galderari erantzuna ematen ahalegintzen den heinean, kriminologiak *zergatian* zentratzen da. Hau da, hura egiteko izan diren arrazoiak, testuingurua eta ekiditeko hartu behar izan ziren bideak hartzen ditu ardatz.

Laburbilduz, diziplinaren izaera *eraldatsailea* kontuan hartuta —eta ez bakarrik haren izaera kontenplatiboa—, haren iritziak eta gomendioak botere-ariketa jakin batzuen erabakien mende daudela azpimarratu beharra dago. Mendekotasun horrek aukera ematen du horiek ez ezagutzeko, isiltzeko edo kontuan ez hartzeko. Ondorioz, kriminologia kritikatu izan da bere funtzioak, biztanleria-sektore jakin batzuen

portaerak jazartzera bideratu direlako —hala, legeak eta zigor- edo hautespen-neurriak justifikatuz—. Egoera bat non alde batera utzi izan dira auzi kriminalaren beste esparru batzuk, hala nola, korporazio handiek eragindako kalteak —esaterako, arnasten dugun airearen kutsadura— (Young, 2015, 248. or.).

Espazioak eta denborak ere eragina dute. Case, Johnson, Manlow, Smith eta Williamsen arabera (2021, 7. or.), kriminologiaren betebeharrak hiru arlotan bana daitezke: 1) krimenaren definizioa eta azterketa; 2) krimenaren azalpena; eta 3) krimenaren erantzuna. Kultura, herrialdea edo une historikoaren arabera hiru arlo hauek portaera konkretu batzuk delitu gisa definitzeko orduan, hauek nola azaltzen diren esplikatzerakoan eta hauei erantzun bat ematerakoan eragina daukate. Autoreek alkoholaren eta kalamuaren kontsumoa aipatzen dute adibidetzat. Herrialde arabiar askotan, alkohola edatea delitu zigortzat jotzen da, kalamuaren kontsumoarekin kontrakoa gertatuz. Justu Erresuma Batuetan gertatzen den kontrako egoera (Case *et al.*, 2021, 28. or.). Munduko beste leku batzuetan abortuaren ikuskerarekin, ablazioaren, pertsona bat baino gehiagorekin ezkontzearen edo homosexualitatearen debekuekin lot daitezkeen konparazioak.

Dinamismo honek auzi kriminala eraikuntza eta berreraikitze soziala dela adierazten du, non, zuzenbide penalaren tipifikazio «ofizial»en arabera, gizarteak portaera desbideratuak, jazarriak eta arbuiatuak kontsideratzen ditu —hauek gertatzen diren lekuaren, garaiaren eta testuinguruaren arabekoak—. Egoera horrek, dinamismoarekin eta jariakortasunarekin uztartuta, diziplina kriminologikoari errealitate, gizarte-interes edo, zergatik ez, ikertzaileari komenigarri iruditzen zaizkion kalteak aztertu ahal izateko aukera ematen dio.

#### ***1.4. OBJEKTU KRIMINOLOGIKOA***

Esan daiteke kriminologiak objektu «askotarikoa» eta «anizkoitza» duela, eta buru-turiko azterketek fenomeno kriminala argitu eta neutralizatzea dutela xede. Hala, Herrero Herreroren iritzia partekatuz (2017, 39-40. or.), esan daiteke diziplinaren aztergaia bakarra dela, haren dimentsioa *poliedrikoa* izanik, aurkeztutako definizioek erakusten duten bezala. Horren erakusgarri, hautaturiko definizioetan gizarte-harremanak, gizartearen aurkako portaerak, epaitutako herritarrak, sistema penaleko agenteak edo delinkuentziaren aurkako gizarte-erreakzioak aipatzen dira. Dimentsio anitz batzuk orain laburki deskribatzen ahaleginduko garenak: delitua, delitugilea, biktima eta kontrol soziala.

##### ***i) Delituak***

Delitua giza ekintza edo omisio antisoziala izan daiteke, legeak delitua burutu duen arduradunari zigorra edo segurtasun-neurria ezartzen diona (Tamarit Sumalla, 2014, 21. or.). Interpretazio hori zuzenbide penalaren definizioarekin lotuta dago, babestutako ondasun juridiko batzuei —bizitza edo osotasun fisikoa, esaterako—

eragiten die, Zigor Kodean ezarriz haien tipologia eta arau-hauste bakoitzak merezi duen zigorra.

Hala ere, nabarmentzekoa da Zigor Kodean ez direla sartzen estatu jakin batean egiten diren kalte edo indarkeria guztiak. Horregatik, nahiz eta kriminologiak harreman ukaezina izan zuzenbide penalarekin, legezko kategoriak ez datoz beti bat kriminologikoekin. Alde batetik, fenomeno kriminalaren dinamismoa dela eta, kriminologia zenbait portaeraz interesatu da hauek arlo penalean tipifikatua egon aurretik —sexu-jazarpena, esaterako—, edo «ustelkeria-delitu»ei buruzko ikerketa ugari dauden arren, hauek ez dute sailkapen zehatzik Zigor Kodean, baizik eta hainbat delitu desberdinek osatzen duten portaera tipoa da —hala nola eroskeria, agiri-faltsutasuna edo ondasunen bidegabeko erabilera— (Larrauri, 2018a, 17. or.).

Era berean, zuzenbide penaletik kanpoko beste adibide batzuk existitzen dira, adibidez, egiturazko indarkeria, gizarte-kalteak edo egiturazko bidegabekeriak. Eskuliburu honen amaieran —8. kapituluari— sakonduko ditugun hiru sailkapen, oraingo honetan, laburki, honela deskriba daitezkeenak:

- 1) Egiturazko indarkeriak, Johan Galtung bakearen teorikoak deskribatutako indarkeria-trinomioan ([1996]2003, 20-262. or.), gizarte-egiturak berak eragindako zeharkako eta ikusezinak diren kalteei egiten die erreferentzia.
- 2) Gizarte-kalteak «bizitzaren iraunkortasuna modu frogagarrian konprometitzen duten gertaera batzuk» dira, barne hartuz giza ongizatea kaltetzen duten ekintza eta omisioak (Pemberton, 2015, 19. or.).
- 3) Egiturazko bidegabekeriak, «ekintza multzo desberdinen ondorioz gizabanako desberdinak menderatze-mehatxu sistematiko baten pean jartzean» egiten direnak (Young, 2005, 697. or.).

## ***ii) Delitugileak***

Delitua modu penalean ulertzen jarraitzen badugu, delitugiletzat hartzen da zuzenbide penalak babesten duen ondasun juridiko bat urratu edo erasaten duen gizabanakoa edo gizabanakoen taldea. Kriminologiari fenomeno kriminalaren komisioan eta agerpenean zer faktorek eragiten duten interesatzen zaio, baita norbanako horien biografiako eta gizarte-inguruneko ezaugarriak, delinkuentzia prebenitzeko eta murrizteko helburuekin.

Dimentsio horretako tipologiaren artean, delitugile gazteen edo delitugile antolatuen portaerak azter daitezke. Hala ere, ez da ahaztu behar, eremu makro batean, egungo sistema kapitalistan kalteak sortzen eta birsortzen dituzten Estatuak eta Merkatuak ere badirela. Kalteok, askotan, ezin dira arau-hauste penaltzat jotzen, portaerak globalak eta dimentsio anitzekoak direlako. Ondorioz, nahiz eta gure bizitzan eragina izan, ez dira maiz ikerketa-objektuen artean sartzen.



### **iii) Biktimak**

Biktimak ekintza kriminal batek iraindu edo zauritutako pertsonak dira (Walsh eta Poole, 2019, 233. or.). Kriminologian biktimek garrantzia bereganatu zuten, batez ere, 80ko hamarkadan Europan buruturiko biktimizazio-inkestekin. Bigarren kapituluaz aztertuko dugun teknika bat, delituaren errealitatea ezagutze aldera urrats handi bat eragin zuena, bereziki herritarren erantzunak jasotzen baitzituen jokabide kriminal baten biktimak izan ziren edo ez jakiteko, hura salatu zuten edo ez ezagutzeko eta zergatik egin zuten ulertzeko (Larrauri, 2018a, 18. or.).

Kalteturiko pertsonetikiko interesetatik, ikerketa kriminologikoen honako informazioa jartzen dute agerian: delituak jasateko aukera handiena duten pertsonak gizarteko sektore ahulenetakoak direla; biktimak delinkuentzia prebenitzeko funtsezko elementuak direla; edo biktimen mendeku eta irudi zigortzailearen eraikuntza osatu gabea dela, ikerketa-prozesuan haien esperientziak sartzeak, adibidez, delitugileekin bitartekotza edo justizia errestitutiboa egitea ahalbidetzen baitu (Larrauri, 2018a, 18. or.).

## **1.1. Kaxa**

### **Zein da zure iritzia?**

#### **GIZAKIAK EZ DIREN BIKTIMAK**

Kriminologia kritikatu izan da antropozentrikoa izateagatik eta gizakien interesak beti erdian jartzeagatik. Esanak esan, kriminologiako adar edo korranteetako batek, *kriminologia berdeak*, defendatu izan du inguruari dagokionez mendekotasuna dugula eta animaliei, naturari edo arnasten dugun aireari berari eragiten dieten egoerak kriminologiaren aztergai izan daitezkeela.

Hortaz, biktimen eremua biktimologia berdearen bidez uler daitekeen bidea da: «ingurumen-delituen biktimekin lotutako gizarte-prozesuak eta erakundeen erantzunak ikertzen dituen azterketa». Gizakiekin batera, bere kezken «zakuan» zuhaitzak, ibaiak edo animaliak ere sartzen dituen (White, 2018b, 239. or.). Apustu bat non, ustez, biktima gabeko edo biktimarik sortzen ez duten egiturazko indarkeriak ikerketa-objektutzat hartzen dituen gizakiok ditugun ikuskerak birplantatzera bultzatuz. Hortaz, gudan berehalako ondorioz ez duten edo eragindako kalteez jabetzen ez garen indarkeriak kontuan hartzen dira —esaterako, kutsadura kimiko, erradiologiko edo biologikoak sorturikoak— (Hall eta Varona, 2018, 113. or.).

**Sakontzeko irakurketak:**

Hall, Mathew eta Varona, Gema (2018). La victimología verde como espacio de encuentro para repensar la otredad más allá de la posesión. *Revista de Victimología*, (7), 107-128.

Spapens, Toine; White, Rob eta Kluin, Marieke (argtz.) (2014). *Environmental Crime and its Victims. Perspectives within Green Criminology*. Routledge.

White, Rob (2018b). Green victimology and non-human victims. *International Review of Victimology*, 24(2), 239-255.

**Galderak:**

Ezagutzen duzu korrante kriminologiko berdetik iker daitekeen zure inguruko kalterik?

Naturan sortzen ditugun kalteek gudan eraginik badute?

Zer iritzi duzu diziplina aztertzeo mugak zabaltzeari buruz? Beharrezkoa al da aztergai diren objektuetan ibaien kutsadura, uraren merkantilizazioa edo zabortegien kudeaketa kaxkarra sartzeari?

**iv) Gizarte-kontrola**

Azken dimentsio gisa, kontrol soziala edo gizarte-kontrola «gizarte-portaera normalizatuaren arabera gizabanakoen portaera gidatzen duten mekanismoen multzoak» osatzen du (Tamarit Sumalla, 2014, 23. or.). Hau da, desbideratzea arautzeko eta adostasun soziala lortzeko gizarte-erakundeei aplikatutako mekanismo batzuei egiten die erreferentzia (McLaughlin eta Muncie, 2015, 419. or.; Walsh eta Poole, 2019, 208. or.).

Alde horretatik, gizarte-kontrola erakunde informalen bidez egin daiteke —parekoen taldearen presioa, familia eta irakaslearen ez onartzea edo lagunaren lotsa—, bai eta erakunde formalen bidez ere —polizia, sistema judiziala eta espetxe-sistema—. Azken mekanismo informal batzuk kriminologiarentzat interesgarriak bihurtu zirenak, batez ere 70eko hamarkadatik aurrera, portaera jakin batzuetan sistema penalarren agenteen jokabideak ezagutzeko.

**1.5. TEORIA KRIMINOLOGIKOAK**

Kapitulu honen hasieran hautatutako definizioen osagai nagusiak labur-labur aztertu ondoren, egokia iruditzen zaigu seigarren eta zazpigarren kapituluetan aztertuko diren teoria edo historia kriminologikoak zertxobait aurkeztea. Fenomeno kriminalari buruzko pentsamenduaren diziplinartekotasuna islatzen duten teoria pluralak dira eta, ikuspegi eta testuinguru desberdinen arabera, arreta zenbait aspektutan jartzen

dute, fenomeno kriminala ulertzeko, aztertze eta aurreikusteko ezagutza multzo zehatz eta bakarra ez dagoela erakutsiz (Anitua, 2015, 33. or.; Larrauri, 2018a, 17. or.).

### ***i) Garai prezientifikoko aro supernaturalak***

Erdi Arotik (V-XV) gertu, kriminala, ongiaren eta gaizkiaren arteko gudu teologikoaren testuinguruan, naturaz gaindiko indarren emaitzat hartzen zen. Hondamendi naturalak, goseteak edo uholdeak bezala, jainkoaren zigortzat hartzen ziren gizarteak eragindako kalte baten ondorioz. Era berean, krimenen bat burutzen zuten pertsonak deabrua barruan zutela uste zen. Horregatik, Jainkoa iraintzen zuen horrek (bekatzaileak), gorputz-zigor bortitzena merezi zuela kontsideratzen zen, eta normalean zigorrari eta delitugilearen biziari exekuzioaren bidez bukaera ematen zitzaion (Brisman, Carrabine eta South, 2017, 8. or.; Pfohl, 2017, 10. or.).

Ondoren, kristautasunaren eraginpean, portaera kriminalak subiranoarenganako desobedientzia eta diziplina falta gisa ulertu ziren, bereziki XV. mendean (Anitua, 2015, 47. or.). Subiranoak, eta zehazki Elizak, krimenen diskurtsoa kontrolatzen zuten, hau da, zer ekintzak merezi zuten zigorra eta zeintzuek ez. Aspektu honetan, erabaki horiekin lotura izan zuten «demonologoak», deabruak harrapatzen ahalegintzen ziren pertsonak —«lehen kriminologoak» bezala ezagutu daitezkeenak—.

Haien eragina aldarrikatuz, auzi kriminalari buruzko adibiderik adierazgarriena bi monje domingotarren 1485 eta 1486 urteen artean idatzitako lana izan zen: *Malleus Maleficarum* (Kramer eta Sprenger, [1487]2006). Eskuliburu garrantzitsua, kode kriminal bat balitz bezala, sorginkeriarri —erlijio-ordena ukatzen zuten emakumeen multzoari— aurre egiteko erabili zelako, epaile, magistratu eta apaizei, 200 urteren bueltan, tortura, sufrimendua eta heriotza gauzatzeko autoritatea eta legitimazioa emanez.

### ***ii) Garai prezientifikoko aro klasikoa***

Ia berehala, Errenazimentuan (1450-1600), gizakia ardatz zuen naturalismo baten alde, naturaz gaindiko eta jainkotasunaren ideiak alde batera utzi ziren. Garai hartan musikan, artean, filosofian edo literaturan aurrerapenak izan ziren arren, Ilustrazioarekin (1650-1800), matematikak, zientziak eta gizabanakoaren duintasunak auzi kriminalaren ulermenean eragina izan zuten.

«Eskola klasikoak» pentsamendu magikotik jarrera iusnaturalistara igarotzea lagundu zuen, non gizonak —emakumeak alde batera utziz, gizarte-kontratutik baztertu zirelako— irudi arrazionala zuen, gorako ordena baten menpean zegoena —zuzenbide naturala—. Hala, portaera kriminala subjektuaren hautespen librean eta arrazionaletan oinarritutako ekintza gisa interpretatu zen, bakoitzak bere interesak bilatzen baitzituen plazera maximizatzeko eta mina gutxitzeko (Brisman, Carrabine eta South, 2017, 8. or.; Case *et al.*, 2021, 99. or.).

Horregatik, ikuspegi utilitarista honen arabera, gizon delitugileak, haren erreallitateak edo gizarte-inguruneak ez zuten interesik, baizik eta zuzenbide naturalak delituari, delitugileari, zigorrari eta justiziari buruz emandako irudiak. Zigorraren aplikazioa, berriz, Erdi Aroko krudeltasunetik aldendu zen eta proportzionaltasunera hurbildu. Norabide honen defendatzailetako bat Cesare de Beccaria (1738-1794) izan zen. 1764. urtean argitaraturiko *Dei Delitti e Delle Pena* liburuan, Hobbes, Montesquieu edo Rousseau filosofoen kontratu sozialaren teoretan oinarritu zen eta inspirazio-iturri bihurtu Italian eta beste nazio askotan tortura eta bestelako zigorrak indargabetzeko erabakietan.

### **iii) Positibismoa eta etapa zientifikoaren hasiera**

XIX. mendean, positibismoak kriminalitateari buruzko interpretazio iluminista gogor kritikatu zuen. Hautespren askearen idea sistematikoki ezabatuz, metodo zientifikoak eta natura-zientzien enpirismoan oinarritutako zientzia baten alde egin zuen. Korrante honen aldekoek Eskola klasikoko kideek aurkitu ez zituzten ebidentzien garrantzia ezinbestezkotzat jo zuten (Taylor, Walton eta Young, [1973]2001, 28. or.). Horrela, esperimentazioa edo behaketa bezalako teknika kuantitatiboen bidez, lehen urratsak eman ziren kriminologia zientzia enpiriko autonomia kontsideratzeko (Case *et al.*, 2021, 100. or.).

Ildo horretatik, «zientziaren ikuspegi mistifikatzaile» baten pean, krimena egitate erreal, neurgarri, zehatz eta enpirikotzat hartu zen. Aztergai nagusia ez zen gizartea, Estatuak edo legeek definitzen zutena —klasizismo garaian bezala—, baizik eta delituaren kontzeptu natural bat lantzea, non funtsezko analisiaren unitatea portaera berezia eta desbideratua baitzen, subjektuaren oinarri patologiko bati erantzuten ziona (Anitua, 2015, 217. or.). Ordutik aurrera, kriminologia zientzia enpiriko gisa ulertu zen. Fenomeno kriminalari eta gaizkilearen patologiei buruzko zenbait hipotesi eta azterlan egiaztatzea, baliozkotzea eta errepikatzea posible zela pentsatuz.

Korrante edo paradigma honi dagokionez, Cesare Lombroso (1835-1909), «kriminologiaren aitatzat» jotzen dena, pertsonaia nabarmenena izan zen. Hautespren librearen kontra, delitugilea izaki anormal eta gaixo mental bezala irudikatu zuen. Horregatik haren jokabidea arrazionala zela interpretatu zuen. Hortaz, baieztapen horren atzean darwinismoaren eragina somatuz, ezaguna da *L'Uomo delinquente* (1876) liburua. Gaizkileak izaki «atabikoak» eta behar bezala eboluzionatu gabeko izaki primitibo eta basatiak zirela salatzen zuen lana. Baieztapen multzo bat gertaeren bidez frogatu zitekeen, bereziki izaki haien ezaugarri fisiko bereizgarriak aztertuz.

### **iv) Delituaren soziologia**

Amerikako Estatu Batuetan aldaketa demografiko handiak gertatzen ari ziren bitartean (hegoaldeko herritar asko iparraldeko hiriguneetara joan ziren eta Europako etorkinak leku berera iritsi), biologiaren eta determinismoaren aldeko idea

positibistak zalantzan jarri ziren XX. mendearen lehen erdian. Testuinguru horretan, hainbat ikertzailek (batez ere Chicagoko Eskolakoek) hiri-hedapenari buruzko teoriak aztertu zituzten, baita haiek fenomeno kriminalaren azalpenen zuten eragina ere. Hartara, Lombrosok deskribaturiko ezaugarri fisikoen eta krimena bideratzeko faktore biologikoen garrantzia txikitu egin zen, gizarte-ingurunearen eraginean oinarritutako interpretazio soziologikoen interesa gero eta gehiago handituz (Brisman, Carrabine eta South, 2017, 8-9. or.).

Esate baterako, Chicagoko Gizarte Ikerketarako Institutuko Clifford Shawek (1895-1957) eta Henry McKayk (1899-1980), hipotesi gisa, aurkeztu zuten ezen pobrezia, populazioaren hazkundeak eta horren heterogeneotasunak familia nahastu zezaketela. Haien ustetan, familia sozialki antolatuta gabeko eremuetan asalda zitekeen. Eremita bat non auzo aberats eta egonkorretan baino, kriminalitate-tasak handiagoak izan ahal zirela aurreikusi zuten (Shaw eta McKay, 1942). Ordea, azterlanean ondorioztatu zuten bi tokietako tasak parekoak zirela eta krimena ulertzeko garaian, gizabanakoen ezaugarri biologikoen azterketak ez zuela baliorik, auzokoek zituzten ezaugarri bereizgarriak baizik (Brisman, Carrabine eta South, 2017, 94-95. or.).

Horrelako ikerketa soziologikoen sortutako ezagutzatik abiatuta, XX. mendean harreman eta mendekotasun handia ezarri zen kriminologiaren eta diziplina honen artean. Gaur egun arte, lotura estua izan duten bi diziplina, harrezkeroztik zenbait teoria bultzatu zituztenak, esaterako: asoziazio diferentziala, anomia, kontrolaren teoriak, teoria ekologikoak edo azpikulturen teoria. Krimena ulertzeko hainbat ikuspegi, zeinetan, elkarreragin sinbolikoarekin eta etiketatzearen teoriarekin, kriminologian aldaketa paradigmatico bat suertatu zen. Momentu horretatik aurrera, diskurtso eta esanahiek garrantzia hartu zuten, baita «kriminal» edo «gaizkile»tzat hartzen zena eta ez zena erabakitzeke ikerketa oinarri bihurtuz ere.

### ***v) Kriminologia kritikoaren aroa***

1960ko hamarkadatik aurrera, Vietnamgo gerraren (1955-1975) aurkako gizarte-mugimenduen, mehatxu nuklearraren, Gerra Hotzaren militarizazioaren, Aljeriako gerraren (1957), Maoren garaiko kultura-iraultza txinatarraren (1966-1976), 1968ko ikasle-mugimenduen edo Martin Luther Kingen hilketaren testuinguruan (1968ko apirilaren 4a), estatu anglosaxoietan kriminologiak auzi kriminala ikertzeko urratsak esparru kritikora bideratu zituen. Paradigma eta haustura epistemologiko berriaren ondorioz, kriminologoa ez zen jada fenomeno kriminalaren edo haren dimentsioen behatzaile «soil»tzat hartzen, baizik eta beste parte-hartzaile arrun bat, zuzeneko kaltetu eta inplikatuarekin batera egiturazko bidegabekeriak prebenitzeko eta gizarte-eraldaketa jakin bat lortzeko xedearrekin jarduten zuen gizabanakoa.

Kriminologia hegemonikoari buelta eman zion lehen adibideetako bat Taylor, Young, McIntosh edo Cohenek sorturiko National Deviance Conference (NDC) izan zen. Estatu Batuetako Kriminologiako Irakaskuntza eta Ikerketari buruzko Hirugarren Konferentzia Nazionalaren (1968) barnean buruturiko zatiketa batetik sortutako

ordezko plataforma, 1968tik 1973ra aditu akademikoak eta desbideratzearen eraginpeko hainbat kaltetu, sektore eta mugimendu elkartu zituen. Bertan, ordura arte kriminologiak kontuan hartu ez zituen gaiak jorratzen hasi ziren diziplina berreraikitzeke apustua eginez eta «desbideratzearen soziologia»ren aldeko lehen hausnarketak eginez (Larrauri, 2000, 74-99. or.).

*The New Criminology: For a Social Theory of Deviance* lanak (Taylor, Walton eta Young, 1973) kriminologia kritikoa oinarriak ezarri zituen lehen haustura epistemologikoaren korranteetariko bat erasotuz: etiketatzearen teoria —*labelling approach* delakoa—. Autoreek uste zuten teoria horrek ez ziela egitura-faktoreei behar adinako arreta eman. Esandakoagatik, kriminologia kritikoa gainerakoetatik bereizi zen materialismo historikoaren metodoa desbideratzearen azterketari aplikatzeagatik edo Estatuaren funtzioa eta kapitalismoaren alde ziharduten sistema penaleko agenteen portaerak behatzeagatik (Larrauri, 2000, 112-113. or.). Alvin W. Gouldner soziologo estatubatuarrek deskribaturiko hari materialista bat, gizarte globalaren eta teoria sozialaren ulermen kritiko gisa ulertu zena, zeinean delituari buruzko ikerketak garrantzirik ez zuen, baizik horiek oinarri izan behar zuten *teoria kritikoak* ([1973]2001, 12. or.).

Latinoamerikan *The New Criminology* lanak bere eraginak ere izan zituen. Alessandro Baratta, Lola Aniyar de Castro, Roberto Bergalli, Rosa del Olmo edo Juan Bustos Ramírez ikertzaileekin, 1984an Kriminologia Kritikoaren Munduko Lehen Biltzarra egin zen Medellinen (Kolonbia). Bertan, adiskide anglosaxoien ondorio berberak partekatuz, ondorengo baieztapenetara heldu ziren: zuzenbide penalak gizarte-gatazkak estaltzen zituela; kriminologia kritikoa egoera hura alda zezakeen ikuspegi bakarra zela —kontrol penalaren soziologiaren funtzioa onartuz—, edota gizarte-kontratu berri bat beharrezkoa zela (Novoa Monreal, 1985, 29. or.).

#### **vi) Gaur egungo kriminologia**

Orain arte aztertutako teorien arabera, Bustos Ramírezek (1983a, 22-23. or.) teoria kriminologikoen irizpide zorrotz edo zabalari buruz egindako zatiketa parteka dezakegu. Lehen teoriak ulermen mugatua —krimena gizabanakoaren eta gizartearen arteko gatazka gisa— edo hertsia —auzi kriminala norbanakoaren arazo huts gisa— izan zuten arren, soziologiaren eta teoria kritikoa interesetatik abiatuta —batez ere hurrengo kapituluaz aztertuko ditugun paradigma interpretatibo eta soziokritikoak—, kriminologia ikuspuntu *estatiko* batetik ikuspuntu *dinamiko* batera igaro zen. Bertan gizarte-prozesuek garrantzia hartu zuten auzi kriminalaren ulermenean. Jauzi horrek paradigma etiologikoa gainditu eta ikuspegi ideologiko eta politikoen aldeko apustua egin zuen, baita postmodernitatearen eragina eta jakintza ororen dekonstrukzioa ere.

Dena den, 80ko hamarkadaz geroztik, kriminologiaren interesak eta aplikazioak neoliberalismoak eragindako aldaketa sozioekonomikoekin batera aldatu ziren. Ideologia neokontserbadorea —Margaret Thatcher (1925-2013) eta Ronald Reagan

(1911-2004) erreferente zituenak—, munduan zehar zabaldu zen, Estatuak gizarte-arazoak konpontzeko zuten ahalmena zalantzan jarriz. Merkataritza libreak eta Merkatuaren hazkundeak bultzaturiko egoera izan zen, non gai kriminalaren zientziak interes horiek legitimatzeko tresna edo paper «justifikatzailea» bereganatu zuen.

Adibidez, Malcolm M. Feeleyk eta Jonathan Simonek (1992; 1995) proposatutako aktuarialismoaren bidez, sistema penalaren logika aldatu eta, «penologia berri» baten bidez, gizarte-kontrolerako estrategiak subjektu-talde edo -kategoria jakin batzuen kudeaketara bideratu ziren, zaintza masiboa eta esku-hartzea talde horietara zuzenduz. Horren ondorioz, sistema penalak funtzio «managerial» bat izan zuen, gizaki «arriskutsuak» espetxean sartuz, monitorizazio elektronikorekin jarraituz edo zaintza modu berriak aplikatuz (Anitua, 2015, 557-558. or.).

Testuinguru honek gaur egun oraindik ere nabarmena den «errepresioaren industria» irudikatzen du, zeina kriminologiak, «kriminologia administratibo» baten bidez defendatu duen —datuetan eta probabilitateetan oinarrituz, arau-hauslea kudeatuz eta gizarte «gu» baten eta «besteen» artean bereiziz—. Egoera honen aurrean, idazlan honen amaieran kriminologiak harturiko norabideari buelta ematen ahaleginduko gara *kriminologia kritiko global* baten aldeko apustua eginez. Formalismo akademikoetatik irtetea, beldurrik gabe parte hartzea, korronte hegemonikoei aurre egitea, kaltetutako pertsonen eta komunitateen eskaerei eta erreklamazioei erantzutea eta bazterretatik ezagutza erakitzea bultzatzen duen proposamena egitea izango da lan honen azken atalaren jomuga.

## **LABURPENA**

- Kriminologia fenomeno kriminala aztertzen duen diziplina anitzeko gizarte-zientzia da —bereziki delitua, delitugilea, biktima eta gizarte-kontrola bezalako dimentsioak—, hura aztertzeko, azaltzeko eta gizarte-ongizatearekiko interesaren aldeko erantzuna ematen duena.
- Paradigma positibistaren nagusitasunak fenomeno kriminala nahitaez enpirikotzat hartzea ekarri du —eredu hipotetiko-deduktiboaren bidez frogatu daitekeena—. Zalantzan jar daitekeen aspektua, diziplina-aniztasunarekin ez bezala, kriminologiak beste diziplina batzuetako ezagutza eta teknika asko erabiltzen baititu, hala nola antropologiaren etnografia, matematikaren estatistikak edo psikologiak eta soziologiak erabilitako inkestak.
- CSI bezalako telesailetan ematen den irudiaren aurka, kriminologiaren funtzioa, besteak beste, jokabide kaltegarri batzuei buruzko iritzia, azalpena eta salaketa ematean datza. Haren azterketari hauek gehitu behar zaizkio: legeen sorreren eta burutzeen ikerketa; biktimen eta delitugileen tratamendua; legeak egiteko eta hausteko prozesuak; prebentzio eraginkorra eta krimenaren aurrean erreakzionatzeko estrategiak lantzea; delituaren esanahi soziala ezagutzea; edo komunikabideen tratamendua aztertzea.
- Kriminologiaren aztergai bakarra fenomeno edo auzi kriminala da. Hala ere, delitua, delitugilea, biktima eta gizarte-kontrola maiztasun handiz aztertzen diren alderdiak dira. Ostera, adibide horiek ez dute zertan zuzenbide penalari loturik egon, egiturazko indarkeriak, kalte sozialak eta egiturazko bidegabekeriak existitzen baitira. Zuzenbide penaletik at ikerketa-bideak zabaltzen dituzten ikerketa-objektuak dira, adibidez, ibaien, animalien edo zuhaitzen egoerez kezka erakutsiz eta salatuz.
- Auzi kriminala dinamikoa denez eta gizartearen eraikuntza eta berreraikuntzari erantzuten dionez, historian zehar horri buruz izaniko interpretazioak oso desberdinak izan direla esan genezake. Besteak beste, auzi kriminalari buruzko lehen ikuskerak naturaz gaindikoak izan ziren —Erdia Aroan, adibidez, hondamendi naturalak, goseteak edo uholdeak jainkoaren zigortzat hartzen ziren—.

Ikuskera hau, geroago, etapa zientifiko batean, determinismoaren, soziologiaren edo korrante kritikoen eraginekin aldatu zen. Adibidez, positibismoarekin delitugilea izaki anormal eta gaixo mental gisa irudikatu zen, haren jokabidea irrazionala zela interpretatuz. Diziplina kriminologikoa eta haren eginkizunak eta interesak etengabe moldatzen dituzten etapak, berreraikitzen ari den gizarte-zientzia bat dela erakusten dutenak.



**ARIKETAK ETA EZTABAIDAGAIAK**

1. Zergatik dira heriotza, gaitza, indarkeria edo krudeltasuna interesgarriak gizartearentzat? Horrelako gaiez pentsatzen dugu kriminologiaz mintzo garenean?
2. Gizarte-eraldaketa kriminologiaren funtzio nagusietako bat izan daiteke? Zer azterketa- edo jarduera-bide izan daitezke lagungarri auzi kriminala aztertzeko?
3. Historian zehar auzi kriminala teoria eta paradigma desberdinen eskutik interpretatu da. Gaur, XXI. mendean, globalizazioa eta nazioz gaindiko harremanak indarrean dauden testuinguruan, zer-nolako interpretazioa egin genezake fenomeno kriminalari buruz?

**SAKONTZEKO IRAKURKETAK ETA KANPO-ESTEKA**

Emazabel Peña, Izaskun (2021). *Ingurumen kalte eta delituen egoera Gipuzkoan: kriminologia berdea* (Gradu Amaierako Lana). Kriminologiako Gradua, Zuzenbide Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI). <https://www.ehu.eus/eu/web/ivac/>  
Kriminologiako Gradua, Zuzenbide Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.  
<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/kriminologiako-gradua>

Rivera Beiras, Iñaki (koord.) (2014). *Delitos de los Estados, de los Mercados y daño social: debates en Criminología crítica y Sociología jurídico-penal*. Anthropos/OSPDH.